

Aitor Zabaleta

KAZETARIA

Poloetan galduta

Magiako trukua egin eta zorioneko giltza atera dute bat-batean, konponbidearen eta bakearen ateak behingoz zabalduko omen dituen. Ditxosozko poloan daukate zenbaitzuek itxaropena, laino beltzen artetik eguzkia ateratzear dagoela iragarri. Eskarmentu handia daukagu horrelakoekin, aspaldi zapuztu ziren ilusioak. Gehiegi ez sinestea hobe, inozo ibiltzea baino.

Berba asko egin da poloaren inguruan, baina ideia orokorretatik haratago ezer gutxi dakigu. Orain artekoa entzun eta gero, itxaropenerako arrazoirik ez; hasteko, gustukoak ez dituztenak edo beraien esanetara moldatzen ez direnak alboratu egin baitituzte. Ez dirudi bideari ekiteko modurik onena denik abertzaleen gehiengo kontutan ez hartzea, zer eta subiranotasunaren defentsan. Ekimena aurrera ateratzen ez bada, beti izango dute biktimismoaren aitzakia: “Gu ahalegindu gara baina mundua gure kontra dago”.

Protagonismoa hartzeko eta kontraesanak ezkutatzeke ez ezik, poloak beste arrazoi nagusi bat ere baduelakoa nago: Hegemonismoaren borroka. EAJ alde batean eta ezker abertzalea bestean. Teruelen edo Cuencan PP ala PSOE beste aukerarik ez dagoen bezala, Euskal Herrrian ere berdina nahi dute zenbaitzuek, beltza eta zuria kolore bakarrak abertzale-



Europar Batasunaren

barruan estatu independentea

aldarrikatzea asmo ederra da,

baina ez edozein modutan.

Independentzia, bakea bezala,

edo inklusiboa da, edo ez da



leentzat. Iñaki Aldekoak izen aproposa eman dio, “hegemonismoaren minbizia”, esparru politikoa handienen artean banatu eta sinplifikatzeko tentazio maltzurra. EAJ alboratuta, abertzaleen erreferente nagusia izan nahi dute poloko subiranistek. Eta EAJ ez ezik, Aralar eta Alkarbide ere kanpoan gelditzen badira, ez dut uste helburuari uko egingo diotenik, nahiz eta botoetan askoz gutxiago izan.

Poloak esparru politikoa “garbituko” duela entzun diot tertuliakide jaun orojakitun bati, abertzaleak bi bloketan baino ezin direla banatu. Asko zabaldutako ideia da, niri batere gustatzen ez zaidana. Herri txikienganako errespetua aldarrikatzen dugu askotan euskaldunok, baina hori esaten duten batzuei ez zaizkie alderdi txikiak gustatzen, Badirudi traba egiten dietela. Txikiak ematen diote, ordea, saltsa politikari, beraiek dira kalitate demokratikoaren neurgailu onenak, homogeneitate tristearen kontrako antidotoak.

Bakoitzak defendatu dezala berea, eta gai badira akordioetara iristeko, bejondeiela, baina hegemonismoak harrotuta bazterketarik egin gabe.

Europar Batasunaren barruan estatu independentea aldarrikatzea asmo ederra da, baina ez edozein modutan. Independentzia, bakea bezala, edo inklusiboa da, edo ez da. ■

TXANDAN

Joxerra Garzia

Ezker Patua



Mamu bat ari da Europa zeharkatzen. Hala zioen, duela mende eta erdi pasatxo, Manifestu Komunistak, eta hala diote oraingo hauteskudeen emaitzek. Marxek eta Engelsek orduan aipatzen zuten mamua, Komunismoa, beste mamu batek irentsi eta ordezkatu duela aldarrikatzen ari dira orain batzuk. Bozak boz eta pozak poz, toki ederrean geratu da ezkerria. Nago, hala ere, benetako ezkertiarrek (hots, ez alderdiak baizik ideologiak irabaztea nahi dutenak) badutela pozteko arrazoirik.

Inoizko zabalduen daude Marxen ideiak. Erreparatu, bestela, Europa hau eta gure (?) finantza sistema eraiki eta kudeatzen ari diren lepezuriei, nola ari diren

merkatu libretik libratu (komuneko zentzuan) nahirik.

Marxek esana da nagusien ideologia dela gizartean ideologia nagusia. Beraz, galtzaga-beek boza lepezuriei ematea normala da, ez dakit zertaz harritzen diren Marxena izan ezik beste edozeinen sozio izateko prest dauden soziauskalotarrak.

Europa, esana dut, euroari pa emanez eraikia da. Pribilegiatuon pribilegioak txukunago-edo kudeatsetik haratagoko kontu sakonagoetan pentsatzen hasten ez bada, nagusien kopia dorpea izango da beti ezkerria, eta garbi dago zein izango den haren patua: Halloween etengabe honetan izu-barregarri izatea, mamirik gabeko mamu huts. ■